

Udal talde politikoaren iritzia



GETXO, JASANGARRITASUNAREKIKO KONPROMISOA

Duela hiru urte gure hauteskunde-programa aurkeztu genuenean, Getxoko EAJ-PNV taldeak eta garai hartako hautagai zen Amaia Aguirrek konpromiso argia nabarmendu genuen jasangarritasunarekiko eta ingurumenarekiko: "Getxo, hiri-ingurune segurua, jasangarria eta ingurumenarekiko errespetua duena. Garbiketa, hondakin-bilketa, lorezaintza, ur, saneamendu eta gure auzoko argiteriako zerbitzuekin konprometituta. Getxon, bizi-kalitate oso ona dago natura- eta hiri-inguruneak bizikidetzan dardelako. Oinezkoen erabilerarako izango den bide publikoa berreskuratuko duen eta gune publikoen kalitatea hobetuko duen hiri atsegin, bizi eta jasangarriago baten alde dihardugu lanean; azken batean, hura erabiltzen duten eta bertan bizi diren herritarren beharrazanean erantzun zuzenaren alde". Helburu hori, esate baterako, hondakin organikoaren edukiontzi marroien erabilera sustatzeko azken kanpainan gertatu zen agerian, hondakin-bereizketaren eta azken produktuaren onurei buruzko informazio argia eta argigarria biltzen baitu. Azken kanpaina horren baitan, jasangarritasunarekin, etorkizunarekin



eta gure seme-alabentzat lortu nahi dugun Getxorekin solidarioa den sistema errazari buruzko informazio guztia heldu zen gure etxetara. Kanpaina horrek bat egiten du birziklapenaren garrantziari buruzko ohiko beste batzuekin, bai eta ingurumenarekiko konpromiso erreala erakusten duten Getxoko beste ekimen askorekin ere. Garapen Jasangarriko Helburueki-

ko eta Agenda 2030ekiko konpromisoak errealak eta nabarmenak dira. Horren adibide garbia da Getxoko Tokiko Agenda 2030eko Ekintza Plana eta horren bost ildo estrategikoak, zeinak Ingurumeneko Tokiko Foroa osatzen duten pertsonen eta eragileek hileroko lantzen baitituzte. Aipatzekoa da ere hamaika ikastetxe eta bertako ikasleen presentzia, ingurumen-jasangarritasunaren eta natura-ingurunearen alde egiten dituzten ekimenekin.

Halaber, nabarmena da ere Getxoko Ingurumen Gela, Larrañazubini dagoena. Helburu argia duen proiektua da: ingurumen-sentsibilizazioa eta gure inguruko garapen jasangarria sustatzea, Bolueren ondoko baliabideak eta hiri-hondakin solidoen transferentziagunea aprobetxatuz. Duela hiru urte esan genuen, eta gure hitza mantentzen dugu proiektu erreal eta egiaztagarrietan. Konpromisoa bete dugu.



UDALEKUAK INGELESEZ



Getxoko Udaleko Gazteria Arloak urteak daramatza udalekuak antolatzen, zeinetan 5 eta 12 urte bitarteko umeek hartzen baitute parte. Hiri-udaleku horiek ikastetxe batzuetan egiten dira, eta askotariko jarduerak egiten dituzte bertan; besteak beste, jolasak, eskulanak, tailerrak eta udalerritik kanpoko txangoak. Udalak antolatutako udaleku horiek euskaraz egiten dira soilik.

Hori dela eta, Alderdi Popularreko kideok, berrikuntza gisa, proposatzen dugu jarduera horietako batzuk ingelesez ere egitea, beste udalerririk batzuetan egiten den bezala. Gure ustez, ekimena oso positiboa izango da Getxo udalerriko umeentzat, era horretan modu didaktiko eta entretenigarrian hizkuntza horren ezagutza eta erabilera areagotuko baitituzte. #esnatuGetxo



PROPOSAMENAK, EAJ-PSEREN INPOSAKETAREN GAINETIK

Azken osoko bilkuran argi ikusi dugu beste behin ere zein den Udal Gobernuaren jarrera inposatzailea. EH Bildutik lau proposamen aurkeztu genituen, eta oso anitzak izan ziren arren, lauren kontra bozkatu zuten EAJk eta PSEk:

1.- Uda ate jota daukagu eta beste urte batez kotxe pilaketak izateko arriskua dugu **Azkorri**. EH Bildutik proposatu genuen autobus zerbitzua sortzea hutsik dagoen Ibarbengoako geltokiaren eta Azkorriren artean, baina EAJk eta PSEk kontra bozkatu zuten, inolako proposamenik aurkeztu gabe.

2.- **Galdara komunitarioak** dituzten familien faktura 500 eurotara iristen ari da. Errenta kontuan hartuta, dirulaguntzen lerro berezi bat sortzea proposatu genuen, beharra duten familiak laguntzeko. Udal Gobernuak ere, kontra.

2.- **Salsidu** inguruko auzokideak oso

kezkaturak daude HAPOk euren etxebizitzetan izan dezakeen eraginagatik. Udalari eskatu diogu eurekin batzeko, informazioa emateko, sentiberatasun eta enpatia apur bat izateko eurekin. Kasu honetan ere, ezezkoa.

4.- **Pentsionisten Mugimenduaren** aldarrikapenak osoko bilkurara eraman genituen, Elkarrekin Podemosekin batera. Hainbat eskaera zituzten: banka publikoa sortzea, 65 urtetik gorakoentzat erraztasunak banketxeetan eragiketarako egiteko... Bada, EAJk, PSEk eta PPK kontra bozkatu zuten.

Gainera, bilkura honetan bertan ere Lope de Vega kaleko proiektuari aurkeztutako alegazioak atzera bota zituzten, eta horrek Romoko Nagusien Etxearen eraisteari atea ireki diezaioke.

Maiatzaren 8an parte hartu herri-galdeketan!



GETXO, HARRERA-HIRIAREN EREDU

"Getxo, harrera-hiria" Alderdi Sozialistak legegintzaldi-planean bultzatu duen hiriko ardatz estrategikoetako bat da. Gure udalerraren errealitatea hau da: azken hamabost urteetan gure udalerriko osatura soziala eta kulturala aldatu egin da, bost puntu igo baita atzerrian jaio-tako pertsonen ehunekoa (hala, % 6tik % 11ra igo da). Egoera horretan, Alderdi Sozialistak **jatorri-aniztasunari aurre egiteko erronka gizarte inklusiboa sortzeko aukeratzat jodu**; hortaz, prozesu hori eraikitzeko lehenengo fasea harrera da. Horretarako, Getxok migrazioen harrerarako

eta arreta emateko bulegoa dauka, PSE-EEK kudeatzen duen **Gizarte Kohesio Arloak** bultzatutakoa, non aholkularitza eskaintzen baitaie migrazio-proiektuen baten dauden herritar orori. **Harrera-ereduan erreferente den Getxo hiria eraiki izanari esker, gure sistemak gaitasun handia du egoera jakin batzuei aurre egiteko, esate baterako errefuxiatuen etorrera masiboa eragin duen Ukrainiako egoerari.**

Izan ere, gure udalerrria aktiboentako bat izan da gerratik ihesean dauden ukrainiarrak hartzeari dagozkionez.



ENERGIA-KRISIARI AURRE EGITEKO NEURRIAK

Azken Osoko Bilkuran, gobernu-taldeak baztertu egin zuen proposatu genuen **energia-krisiari aurre egiteko udal-plana**, zeinak energiaren eta erregaiaren prezioa igo izanaren ondorioak konpontzeko neurri sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak biltzen baititu. Sentitzen dugu tokian bertan autokontsumo elektrikoko komunitateak, eraikin publikoetako energia-arrizpena eta mugikortasun jasanga-

ria bultzatzeko aukera galdu izana. Indarrak batu behar ditugu gobernu zentralak, euskal gobernuak eta beste erakunde batzuek hartutako neurriak ezartzeko, eta etorkizunera begira egin behar dugu hori, herritarren erosteko ahalmena berreskuratuzeko ez ezik, **kontsumitzeko eta aurrezteko beste eredu batzuk ere ezartzeko, betiere energia-trantsizioaren aldeko apustua eginez. elkarrekinpodemos@getxo.eus**